

LIZARDI GAZTEAREN OLERKI-MORDOA

Orain dala bost edo sei urte gure argitaletxe batek Lizardi idazlearen idazlan billa jarri ninduen. Olerki eta osterontzeko guztiak nai zituen gure idazle ta olerkari andiaren lan guztiak argitaratzeko asmoz. Argitaletxeari aaztu egin zitzaion nonbait emandako agindua edo erakutsitako asmoa aldatu egin zuen, eta paper artean gelditu zan nik pillatutako lana, eta orrekin Zarautzko semearen olerki gutxi ezagutuen bilduma.

Gaur KARMEL onen orrietara ekarri nai dut Lizardik, beste ezizen batzuen pean 1917tik 1920ra argitaratu zuen olerki mordotxoa. Lizardizale askotxo agertzen zaigu ari omenaldiak eta egiteko prest. Nik ez dakit norafokoa dan zaletasun ori. Gaur arte ez dio, beintzat, ain maite duten olerkari orrek bizian zear zabaldu zituen lan guztiak billatzeko nekerik arrerazi. Orraitio Antonio Maria Labaien jaunak iturri bat erakutsi zien; non billatu salatu zien. Eta Euzko-Deya Bilboko aldizkarian 1917n argitaratutako olerki bat ere eskuataratu zien: *Jaun errukitsua* izenekoa. Ain zuzen erderatik euskerara itzulitako lana zan bera, eta ez Lizardiren olerkirik jatorrenetakoa. Sonettoa da, eta Lizardik bere neketxoa artu zuen olerki orri euskeraz erderazko soneto tankera ematen. Soneto ori *Euzko-Deya*-n agertu aurretik, aldizkari berean bazituen Lizardik argitaratuta iru olerki, eta geroago mordo ederra. Guztiz, 18 olerki, bai.

Euzko-Deya, Bilboko Euzkeltzale Bazkuna-ren bultzada ta

eragitez 1916n agertu zan plazara. Ez zaio esker onik egin. Prailie ta elizgizonak sortutako aldizkariak kendu ezker, *Euzko-Deya* ori dala uste det euskera utsezko lenengo aldizkaria. Orre-xegaitik ere, aipamen geiago eta esker ohea merezi duelaokan nago euskaldunen aldetik. Garai artako euskal-idazle argi askok ez zioten muziñik egin. Aren orrietako lankide ikusten ditugu orduko eta geroagoko ainbat izen eta ez-izen: Kirikiño, Eleizalde, Aizkibel'dar Bingen, Arrugain, Elzo-Azpiazu, Sagarzazu, Tene, Larreko, Zinkunegi eta abar. Abar onen barruan, geroko Lizardi, eta orduko Zarautz'ar Sabin eta Samaiko Zulo, edo Jose Maria Agirre Egaña, Zarautz-ko semea.

Aldizkariak 1916tik 1923garrena arte iraun zuen bizirik, 1920 maiatzetik 1921 garrena arteko ixilunea izan zuela. Edozein gaiezko lanak ateratzen zituen. Eta zenbaki bakotxean, bi edo iru olerki ta bertsozko lan.

Lizardik olerki-saillean egindako bidea eta bide orretan egindako aurrerakadak ikusi eta jakiteko Euzko-Deya-n atera zituen olerkiak ezagutzea ez da gaizki etorriko. Aldizkari orretan 1917n asi zan idazten Zarautz'ar gaztea. Urte orretako jorraillaren amaseikoa du *Nere lenengo maite-ibilketa*. Aldizkariaren 28garren zenbakian dator. Gero amasei geiago aterako ditu: Euzko Mendiya (29garren zenbakian), Zelai urdiña (33), Jaun errukitsuba (41), Nere maitiak ditu (53), Maitasunaren illetea (63), Maiteder (66), Maite izane-ri (71), Aztu, biotz orrek (72), Oia (73), Izurkitako sua (78), Gaiztuen itzala (79), Euzkera (80), Idazkiya (81), Gastiaren otoitza (82), Amona (83), Otoitza (87), Igesi (88). Itz-lauzko batzuk ere baditu, baiña gutxiago.

Aldizkari osoa idazle ezizendunez beterik dago. Gero Lizardi ezizena artuko zuenak Zarautz'ar Sabin eta Samaiko Zulo erabiltzen ditu. Norbaitzuk Mendi-Laute ere Lizardiren ezizentzat eman dute; baiña uste ori okerra dala ikusteko Euzko-Deyan bertan daukagu argibidea. Zenbaki berean bein baiño geiagotan ageri dira bata eta bestea. Biak itz-lauz eta bertsoz idatzi zuten, eta biak Zarautz'ar bertatik. Eta bein Mendilautak Zarautz'ar Sabin zirikatatu du, ea zergaitik ixildu dan, ea zergaitik ez duen

txori kantari jarraitzen, zergaitik ez duen olerki geiago ateratzen. Eta Sabin-ek bertso jostari arin eta bizitan erantzungo dio. Bertso oietan eman digu Lizardik bere adiskide eta errikidearen izena: Txomin, Jon Bilbao jaunaren bibliografiari arrazoa emanez Domingo Arruti jarri du Jon Bilbaok Mendilautaren izentzat. Egia ala dala dirudi. Ala ere gauzak illun uzteko, Bibliografia berean Mendilauta orren bi lan, Euzkerea aldizkarian argitaratuak, Lizardirenak diralakotzat eman dizkigu. Okerrak edozein liburutan ager daiteke. Eta liburu luze andietan, areago.

Lizardiren lanak bein eta berriz eman dira argitara; baiña lenengo aldian, gaztezeroan, argitaratu zituen olerkietatik, guk dakigula, bi baizik ez. Bata len aipatu degu: Jaun errukitsuboi, erderatik itzulitako sonettoa, bi itzulpenetan emana, Euzko-Deyak 1917 emandakoa, eta geroago beste ikutu batzuk egiña. Olerki onetan Lizardi Euzkeltzale Bazkuna-ren eskolako egiña ageri zaigu, aldizkariaren idazkera eta ortografia artuta. Gaur bitxi egiten zaigu gure olerkaria Euzkeltzale Bazkunakoen lege ta arau batzuen mende ikustea. Beste lege batzuk giputzen ago ete idazkeran oso sartuak zeuden orduan: aldiya, bereziya, zubeak, suba ta ola idaztea.

Beste olerki bat, Euzko-Deyan emana eta Lizardiren lenengo liburuan agertua eta orain ere agertzen dana, *Oiari* egiña da eta izenburutzat goian onako itzok ditu: Ondo apaldu ondoko berriketak. Ikutu txiki batzuk egin dizkio gero itz batzuetan: Esaterako *asmatu* eta *lasatu* jarri len sumatu eta lasaitu zana. Bertso lerrorik aldatuena au du: *Asun miñez beterik*, leen *jostorratzez josirik zeukana*. Nonbait gogorregi egin zitzaion oia jostorratzez jostea. Bertso suetan, gaiñera, Bizkaiko kutsurik ere aurkitzen diogu Lizardik: -kaz atzikia, be, dagiket adizkia, *dezaket*-en ordez. Azkenengo au geroko ere erabili zuen, gipuzkoako leku askotan bezala.

Amabost olerki geiegitxo dira gurea bezalako aldizkari batean guztiak batera emateko. Jakiña, kanpoan geldituko dira bai *Oia* eta bai *Jaun errukitsua*, lendik ezagunak diralako. *Egilleak berak Biotz-begietan liburuan atera zuen oia*, eta bestea ere azkenen-

go edizioetan sartuta aurkitzen degu. Orain artean Lizardik Euzko-Deyan argitaratutako olerkirik ez zuela geroago argitaratu esan dutenek gezurti egiten ditu *Oia* olerki orrek. Nonnai bezala, gure artean ere ezjakin ausartirik bada.

Gaurkoz, berriz esateko, ez ditugu beste guztiak emango, baiña bai mordotxo bat, besteak urrango zenbakietarako utzirik. Guztiak daramate egillearen ezizena: Zarautz'ar Sabin edo Samaiko zulo.

ZELAI URDIÑA

Erazi'tar Joseba'ri

Mendi-goitxu batian,
izerdiz, itzalpe-billaka ibillita gero,
aize otzantzaren musu osasungarriya arpegiyan,
exerita nago.
iNere begi-aurrian
dagerren edertasuna! jainkoa'ren almena!
iMugageko zelai bare gelgarti urdin berdiña!
iltxaso zabala!
Emendik ikusita
legorra bezin gelditun ta egokor dirudizu:
ta, margo argitsuagaz, legorreko ibayai be
antz-ernateyezu.
Zelai amaige urdiña:
¿zeuk ere bai ete-dituzu nekazariyak?..
Bai-dakust zure gain laua ixontzixuz beteta..
iBerok bai txitxarrak!
iJostallu irrigarriyak,
itxas amaigabian iltzez josita letxel..
Goiatz alkar jotzen dun ibar ameskarriyan,
¿Zerbait ba-al zarete?
«Gure txikitasuna!»
ikuskitun ori dala-ta oldoztillun diyot..
Ta nik, neure buruba goitxu ontan dakustelako.
Ala ba-deritxot,
Goi-goikoaren aurrian
gizonak, naiz goyenak be, ¿zertzuk ete gera?.

Argiya, iltzen, urre-il-janzkiz, sarkalderantz bai-dua..
Berako garaiya.

Kai-ondotik nuala,
bateltxo bat dator zapiya zabal-zabalik..
Berton datorren itxastar bizkar-sendo bakarrak
au diyo abesturik:
«Ni naiz, ni naiz
Zelai urdin, zure nekazaria!
Ni naiz, ni naiz
Jaun-Goikoa'ri eskerrik dagiyotena;
Zelai urdiñaren emaitz ugariyak
Maiteki eskuratu dizkitenari..
Ni naiz, ni naiz
Zabal urdin auetan nekazari..
Amaika nekien saritzat, nere
emazte ta seme-alabatxok eztira
izango gose..

Ni naiz, ni naiz
Zelai urdiñeko nekazariya!
Goiko-jaun onari esker eta aintza!»

Oi, ni naizen zorua!
zure kaltez oldozka goiko abaro atsegiñan
nengoenaren aldian, neke zenbi zenbiltzanoi
Aundiyagoa ziñan!
Aundiyagoa bai, ziñez,
Jaun-Goikoa'ren begiyetan, neu geroago egonik,
itxas-zelai urdiñeko nekazari kementsu
bildur-gabeko ori..

Samaiko Zulo

NERE MAITIAK DITU-EDO «AXARIGA DANTZAN»...

Nere maitiak ditu
begiyak orlegi...
Negua biyotzan, begiyetan udaberri...
Euzkadi'ko zelai ta
basuen argiyak
margoztu ei-dizkio berari begiyak...
Nere maitiak ditu
me-miak ezpañak
euzkeraz mintzatzeko bakarrik egiñak.
Etzadazute eskatu,
aren ortzen berri
ezpai-dizkit ozkirri-bidez, erakutsi.
Nere maitiak ditu
beste lau maitale,
ta ni baiño geiyago edozein du maite!

Zenbat maite zaidutan
iñoiz esan dizut?
Kanpandoia ximela baiño nayago zaut!..
Bañan, zuk neretzako
etzezunezkero
beazuna ta ozpin garratz-miña baiño,
nere malkuak-arren
ezpai-nazu maite...
negarra-biarrian ein dezadan parre!

Nere maitiak ditu
begiak orlegi...
Bigun ba'litzaizkit, bizia udaberri!

MAITEIZANE'RI

Nere gogoko lore bakarra,
nere gabeko izarra...
Samin-eztiya zeran oroya
nere parre bai negarra...

Nik zu bakarrik maite-izan zaitut
maitetasun bereziyaz
norbere aurren ama-gaiyari
zor-zaion gurtze garbiyaz..

Nere biziko lorategiyan
udaberriya itzali da...
Gaba da: illunaz, urretxindorrak
dabez azken-abestiya..

Agur betiko, nik maite-izana..
Bemozu Jauna'k zoriya!
Españak - Maiteizane - deritzu,
biyotzak, baño..., -Maitial.

Zarautz'ar Sabin

AZTU, BIYOTZ ORREKI..

Biyotz, oroi zar batek ago naigabetuta,
eztiz ta beazunez nastutako oroia..
Maitetasun etzi bat bere gezi zorrotza
eugan sarturik ziok, biyotz maitagariya..

Oroikun zar eztiyok zauri senda-gabiak
dituk, ta i aiz, biyotza, zauridun zorua..
I aiz bere zauriyak azkazalaz urratzen
atsegiñik uste-dun gaxua lakua.

Bizitz-bide-ertzan lore bigun bat arki-uban..
loran ezin, ordia, ebaki izan-uban!..
Arrezkero, negarka, sariyegi begiyak
biyur-dituk, loria berrikusi-naiyan!..

Bizitz-bidian, baño, eztagikek atzerantz..
Lore guri-maitia eten eztezakek!..
Arren, biyotz, bidian atzerantz ez begiztu,
biderik zori-onez ibilli nai ba-dek!..

Autsi, biyotz, kemenez, lotzen auan estuntza,
lore bai lantzeko estuntza zail oril..
Indargeturik aukan oroi samiña aztu zak!
Egaztiya aiz: egaka, goyan galdu adil.

Entzun: bai-dek iretzat beste maitagarririk,
ta beroni zor-diyok eure su guziya..
Aberriya! Berak dun maitetasun-iorana
ta alperrik dariyoken odol-egariya!!!

GASTIAREN OTOITZA

Jauna, nere otoitzak,
arren, entzun itzazu...
Gogo neketuari
eman, arren, gentza...
Osertz-illuna autsita
gaban izar bat jarri...
Eguzki-izpiz argitu
nere etorkizuna!

Ongi nekiyen, Jauna,
umetan ikasita,
zuk dezula bakarrik
pozkidaren giltza:
Iñioiz aztuta ibilli
ba-naiz, azketsi, Jauna;
gaur bai-nator, eztiya
billatzen Zu'gana...

Zaurituta, gaxorik,
gasterik nekatuta,
listor-eztiz aseta
samieñez gogua,
zeure eztiya nai-det
ezti goitar-gozua,
ludiko loriena
ez bezelakua...

Nere udaberriyaren
egunik gozuenak
ega zaizkit, usteta
betiko nitula...
Eta, ametsak etenda,
zimelduta loriak,
arkitu det gogua
goizegi zartuta...

Bizitzako bidia
arantzekua dala
igertzen asten geran
bide unian nago...
Atzian..., lore etenak
estalita bidia;
Aurrez..., goya beltzago
negu-gaba baño...

Ta illunpian enora da
bidiaren txurizka?..
Arren, zein da ta, Jauna
nun *nere bidia*?..
Osertz-illuna autsita
gaban izar bat jarri
zazu... Ta, arren, argitu
nere etorkizuna!.

Zarautz'ar Sabin

AMONA

Amonatxo bat bakarra daukat
iñoiz ez lukena il biar...
itzaltzen, baña, bai-dakust era
barrenak dagidat negar...

Antzin-Orain-arteko zubiya,
ai, zenbatzutan zu-bidez
egun urrunen, egun obien
usaiya aitu dek, yoranez!

Orri oridun idazti zarra
zera, ta zugan billobak
ia, zenbait ipui billatu ditun
eztitasunez betiak!

¡Au neke latzak! ¿Zergatik-ete
biyotzak dagidak negar?
¡Amonatxo bat bakarra daukat.,
ene!. ita berak... il biar!.

Zarautz'ar Sabin

GAIZTUEN ITZALA

Eguzkiyaren
goriyari igestiarren,
baso-basuan
bidazti ona bein baten
babespetu zan.
Zetzala, txori bat duar,
adarrik-adar,
ixil-urduri
kabira-yoranez, noski,
arra bai'takar...

- «Ez gaitzik uste...»
(legun diyotsa
gizonak errukituta)
«Uake, maite
kabira, bildurrikabe»
- «Nun dan ikasi
ta gero lapurtzeko?»
- «Ezetz, ba, txori!»
- «Ua, ba, ta urrun, nik ori
ziñistatzeko...»

Gizonak, zutitzen zala,
leundo diyos:
- *Baten gaiztua
edonun aski, galtzeko
eunen izena!..»*

Zarautz'ar Sabin

Euzko-Deya-ren 78garren zenbakian berean zetozen Li-zardiren olerki bat (izarkitako suba) eta Mendilautaren lantxoa (Ixildu datxori abeslariya, Zarautz'ar Sabinñi zuzendua. Idazkiya da Sabinen erantzuna. Emen eta Oia izeneko olerkian olerkariak bere olermenaren alderdi berri bat erakutsi digu: umore oneko alderdi jostari bizia.

IDAZKIYA

«MENDI-LAUTAR!»

Zarautz'en

Ai «Mendi-Lauta»
aizkide ona
ta adar jotzalle
bikaña..
Bai-nitxekiyan
asto nitzala:
txori nitzanik
ez bañal..

Ia uste orretan
bizi-izan-arren
eniyan poza
makala,
gogoratzian
astuak ere
zerbaiterako
dirala..

Gaur, bat-batian,
ille zakartzat
nitxeuzkan luma
bigunak
arropuztuta
jarri zizkidak
ire zuritze
legunak.

Baña, gauz batek,
Txomin neria,
gustiz samindu
natxiok...
Alkondara-utzik
leyoratzia,
Txomin, egoki
etziok!

Su-kanpayarren
ba'litiz e... tiral...
etziyat ezer
esaten...
Bañan asto bat
ari dalako
entzun-aldi bat
ematen?..

Aide batetik,
aize gaiztua...
Bestetik, auzaz...
lauxe bail...
atso goiztarrrik
auzuan ba-dek
berritsukeri-
-gairik-zai?.

Ez, Txomin txiki...
Alkondara utza
gustizko jantzi
motza dek
ta i bezelako
zaldun benari...
etzegokiyok
orretxek!

Zer?.. Txorkatillak
ukutzeraño
bai-dala ire oi-
-atorra?..
Ortaz, Pilipa'k
berriz e, jaitan,
erreko al-dik

txokorra!

Baña, jolasak
alde batera,
ezin gerraikek
onela...
Ala ik oitura
txar ori laga...
ala ni ixildu
bestela!

Zergatik nagon
galdetzen didak
ain luzaruan
ixillik...
nere lagunoi
adirazteka
bizirik naizen
ala illik?

Txoriya ba'nitz
esango nitek
kayolperuta
nagola,
lanaren neke
nagigarria
dalarik nere
kayola...

Ta kayolpeko
txori lotubak
eztik abesten
egundo
azkiak ainbat
sarritan... ezta
basuan bezin
bigundo!

Txoriya ba'nitz
esango ni... ezta
basuan bezin
bigundo!

Txoria ba'nitz
esango niek

zelai kutun bat
neukala,
ta antxe bakarrik
abestutziak
pozik ematen
zidala...

Bein, ekaitz batek,
ego-ekaitzak,
zelai orixe
jo ziyen,
ta ango txoriyak
igesi ziyen
urrun, egada
biziyen...

Baña, zelayan
aize zakarrak
baretu diran
garayan,
berriz txoriyak
poziz-poziz
batzartu dituk
zelayan...

Esan-biarrik
etziyat, noski,
nungo zelaya
dan ori...
EUZKO-DEYA dek...
Naiko bidertan
izan aiz bertan
eori...

Agur... Bai-niak,
onenbestez ba
jardun al-diyat
naikua...
Ta nere otsik
entzutiarren,
ez geio iriki
leyua.

Zarautz'ar Sabin

Eta onenbestez, gaurkoz aski bedi. Gaiñerako olerkiak, J. L., urrengo zenbakietan aterako ditugu. KARMEL onen irakurleek pozik irakurriko dituztelakoan gaude, Lizardiren euskal-lana obeki ezagutzearren.

L. Akesolo